



## LASARTE-ORIAKO BARATZE EKOLOGIKOAK ESLEITZEKO ETA KUDEATZEKO UDAL ORDENANTZA

Plazaola Landa-Parkeko Baratze Ekologikoen programa bitarteko gisa definitu behar da ingurumenaren alorrean prestakuntzarako eta kontzientziatzeko, halanola lurraren eta uraren erabilera planifikatu eta kudeatzeko eta espezie autoktonoak zaintzeko, heziketa alorreko barazkigintza ekologiko batekin praktika iraunkorrak ezarri, aisialdiko baratzak. Aisialdiko baratze zaintza hiritar askorentzat da indarrean dagoen zeregin ludikoetako bat. Hori dela eta, proposatzen dugu baratze txikiak sustatzea, Lasarte-Oriako herritar batzuek erabiliko dutena elikagaiak lortzeko familiaren kontsumorako.

Udalaren konpromisoa izango da interesaturiko pertsona guztiek programan sarbidea izatea, eta lursaila izateari gehitu behar zaio beharrezko zerbitzuetara zuzeneko sarbidea izatea lurra lantzeko. Zerbitzua erabiltzen dutenek ingurumenari loturiko arauak gorde bete dituzte, horiek baitira programari zentzua ematen diotenak. Eta, auzo-komunitate batean garatu beharreko laborantza denez, ezinbestekoa da hori guztia arautzea pertsonen eskubideen eta betebeharren Ordenantza honen bidez.

### I TITULUA

#### OINARRI OROKORRAK

##### ***1. artikulua. Araudiaren xedea.***

Ordenantza honen xedea da beharreko baldintzak ezartzea Lasarte-Oriako Baratze Parkeko lursailak erabili, gozatu eta etekina ateratzea arautzeko izango direnak, hala nola horiek esleitzeko prozedura arautzeko, baratzetako laborantza jarduera eta erabiltzaileen erantzukizuna arautzeko.

##### ***2. artikulua. Aplikazio eremua.***

Araudiaren aplikazio eremu objektiboak hartuko ditu Lasarte-Oriako Baratze Parkearen barnean sarturik dauden lursailak.

Eremu subjektiboari dagokionez, arautegi honen edukia aplikatuko beharko zaie Lasarte-Oriako udalerrri honetan legezko eta izatezko egotzari, aisialdiko baratzak ekologikokoak erabili, gozatu eta etekina ateratzeko, baldin eta esleitzeko Ordenantza honetan aurreikusitako baldintzak betetzen badira.

##### ***3. artikulua. Definizioak.***

- a) Erabiltzailea: Lizentziaren adjudikazio hartzailea edo titularra: Pertsona fisikoa, eta berari egokitzen zaio lagatzen edo alokatzen den ondasuna erabili



eta etekina ateratzea. Alor honetan interesatzen diren ondorioetarako, aisialdiko baratzen ekologikoaren lagapenaren edo alokairuaren onuraduna.

- b) Emaitzak: Baratzea erabiltzailearen ondorioz sorturiko etekinak, hau da, ereintzatik sorturikoak, eta lurra lantzetik, esate baterako: Barazkiak, fruituak, ortuariak, etab.
- c) Elementu komunak Horiek dira lursaileko elementu naturalak edo jarritakoak. Lursailetan baratzak daude eta jabeetako bati baino gehiagorentzat edo guztientzat baliagarri izaten dira, esate baterako, bideak, hodiak, uraskak, konpost egiteko makinak, etab.
- d) Erantzukizuna: Baratze erabiltzaile bakoitzak duen erantzukizuna da, banako gisa, erabiltzaile den sail zatiaren eta elementu komunetan parte-hartze araberakoa.
- e) Baratze ekologiko publikoa: Bakoitzak duen lursail zatia; zati horren gainean eratzen da erabili, gozatu eta aprobetxatzeko erabiltzaile bakoitzak duen eskubidea.
- f) Lursaila: Baratze publiko guztiek eta dituzten elementu komunek osaturiko udal lurra, hartan daude asialdirako baratzeak.

Bizikidetzaren unitatea: Etxebizitza berean izatez eta zuzenbidez elkarrekin bizi diren pertsonak, hauxe da, bi ezkontideak edo izatezko bikotekideak (edo horietako bat alargundua, banandua edo egonez gero) eta adingabeko seme-alabak, etxebizitza berean bizi badira.

#### ***4. artikulua. Elkartearen sorrera.***

Adjudikazio-hartzaileak behartuta egongo dira elkarte bat sortzera baratzak kudeatzeko, eta, horrez gain, Udal kudeaketaren arduradunarekin zuzeneko harremana izateko pertsona bat izendatu beharko dute. Bozeramaile horrek erabiltzaileen zalantzak, arazoak, etab. Jasotzeaz arduratuko da.

Era berean, elkartearen helburu izango da Lasarte-Oriako Baratze Parkea zaintzea zuzen funtziona dezan eta gutxieneko mantenimendu lanak burutzea.

#### ***5. artikulua. Lagapen epeak.***

Lursailaren onura ateratzeko eta/edo erabilera lagapen aurtebeteko aldirako emango da, eta gehienez lau urte arte luzatu ahal izango da.

Luzapenak adostuzat hartuko dira, baldin eta aldeetako edozeinen aurretiko abisurik ez badago hilabete bat lehenago lagapena edo hurrengo luzapenak amaitu

aurretik edo azken hilabetean, baratza garbi eta hurrengo adjudikazio-hartzaileak lantzeko moduan.

#### ***6. artikulua. Baratzak erabiltzeko oinarri orokorrak.***

1. Zaintzeko eta mantentzeko oinarria: Baratze Parkearen erabiltzailearen betebeharr nagusia izango da lagatuko lursaila behar bezala zaintzea eta mantentzea. Horren



- erabileran behar adinako arreta izango du, lurrak osasungarritasun-baldintzak, apainketa eta lanketa izan ditzan.
2. Instalazioak erabiltzeko begirunearen oinarria: Baratze ekologiko baten lagapen-hartzaile den edonork saihestu beharko du beste eragozpena, kalteak edo galerak eragitea.
  3. Salerosten ez aritzeko oinarria: Lagapen hartzaileek debekaturik izango dute baratzak erabiltzea merkataritzako edo ekonomia ustiapeneko helburuetarako.
  4. Nork bere burua hornitzeko oinarria: Lurraren emaitzak, baratzetan eretitetik sorturikoak, norberak edo familia-unitateak soilik kontsumitu ahal izango ditu, eta inola ere ezin izango dira erabili etekin ekonomikorik lortzeko.
  5. Ingurumen neurriak hartzeko oinarria: Baratzen erabileraren onuradunek ezingo dute ongarrizko produkturik erabili, ezta produktu fitosanitarioak ere. Izan ere, lurrean kalte izugarria eragin lezakete, lurrak eta egon daitezkeen akuiferoak kutsatuz, eta betiere laborantza Ordenantza honetan azaldutako baldintza zorrotzetan nekazaritza ekologikoko sistemen bidez.

### ***7. artikulua. Aplikatu beharreko erregimena eta erregulazioa.***

1. Udal Aisialdiko Baratzen erabilera kalifikatu beharko da herri jabariko ondasunen erabilera arrunt berezi gisa, Tokiko Ondasunen Araudiaren 75.1.b) artikulua ezarritakoaren arabera, eta lizentzia emateari atxiki beharko zaio.
2. Baratze publikoen kopurua mugatua denez, baratze ekologikoen ustiapenerako erabilera baimena eskatzaile guztien arteko lizitazio bidez esleitu beharko da konkurrentzia erregimenean. Hala ere, Lasarte-Oriako Udalak gorde ahal izango ditu interes taldeei espezifikoki zuzenduriko lursail batzuk.
3. Esleitu beharreko baratzeak baino onartutako eskaera gehiago balego, zozketa bidez egingo da esleipena.
4. Aisialdiko baratze ekologikoak adjudikatu, izan eta gozatzeko ezarriko den Araubidea, Ordenantza honetan aurreikusita dago.
5. Haren orde, 33/2203 Legean jasotako arauak ezarri dira, Administrazio Publikoen Ondareari eta tokiko erakundeen Ondasunen Arautegiari buruzkoa dena.

### ***8. artikulua. Lizentzia***

Lizentzia baratza norberak erabiltzekoa da eta ezingo da eskualdatu, eta eragina izango du lagapenean ezarritako baldintzak dauden bitartean. Erabiltzaileak inola ere ezingo ditu laga, zergapetu edo kostu bidez edo dohainik izan eskubideak, lizentziaren baimenduriko erabilera erabiltzearen ondorioz sortzen direnak.

Eskubide horiek inola ere ezingo dira hirugarrengeoi transmisioaren bidez eman. Lizentziaren titulua «prekarioan» emango zaio erabiltzaileari. Horrez gain, interes publikoko arrazoiak daudenean Udalak emaniko lizentzia baliogabetu ahal izango du edozein unetan, eta Udalaren aldetik inolako kalte-ordain eskubiderik gabe. Interes publiko hainbat arrazoi izan daiteke.



Horien artean daude, besteak beste, «aisialdiko baratza ekologikoen» programa ordezkatu edo bateraezina den edozein udal programa onartzea, edo baita Udalak edo beste edozein Administrazio Publikok edozein hirigintzako garapen Plan edo azpiegitura onartzea, berekin ekar lezakeena aisialdiko baratzetako lursailetan edozein homidura publikoa ezartzea ere. Horrela bada, aipaturiko Plana onartzeak ekarriko du erabilera publikoko edo gizarte intereseko adierazpena egitea, era horretan herri jabariko lursailak erabiltzeko emandako tituluak indarririk gabe uzteko, eta ekar lezake lizentziagatik emandako baimena erabat edo partzialki galtzea, inolako kalte-ordain eskubideri izan gabe.

### ***9. artikulua. Baratzetarako programaren jarraibideak***

Alkateak jarraibideak eman ahal izango ditu aisialdiko baratza ekologikoen programaren ezaugarri orokorren edo zehatzen inguruan, erak, ordutegiak, laborantza motak eta abar diziplinari atxikitzeko, oro har edo bereziki. Horrez gain, baratza erabiltzaileek jarraibideak derrigorrez bete beharko dituzte, hala nola gai horren inguruan Alkateak, zinegotzi/ordezkariek edo horretaz arduratzen diren udal langileek erabiltzaileei ahoz emandako aginduak edo argibideak. Horiek guztiak derrigorrez bete beharko dituzte.

## **II TITULUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA**

### ***10. artikulua. Onuraduna izateko baldintzak***

Lasarte-Oria Baratza Parkean baratza ekologikoak hartzeko lizentzien Onuradun izan ahalko dira Lasarte-Oriako Udalerrian erroldaturiko pertsonak eta errealki herrian bizi direnak, gutxienez urte bat lehenago adjudikaziorako deialdia argitaratzen denetik kontaktzen hasita. Horrez gain, honako baldintza bete beharko dituzte:

1. Lasarte-Oriako Udalarekin zerga edo beste mota bateko betebeharretan egunean egotea.
2. Familia-unitatearen beste inolako kiderik beste baratzeko ekologiko baten erabiltzaile ez izatea.
3. Ez eskatzaileak ez familia-unitatearen beste inolako kiderik landa izaerako lursailik izatea, nekazaritzako jardueretarako egokiak direnak, edozein lekutan daudelarik.
4. Zigortua ez izana, aurretik aisialdiko baratzak izatean Ordenantza honek aurreikusitakoa ez betetzeagatik.

Adin txikikoen eskaerak aitak, amak edo tutoreak abalatu beharko ditu. Eta, heldu hori izango da arduraduna Ordenantza honen ondorioetarako

### ***11. artikulua. Lizentziak onartzeko prozedura.***

1. Lizentziak emateko aplikatu beharreko prozedura aisialdiko baratzak hartzea bideratzeko eta horiek erabiltzeko eta etekina ateratzeko eskumena, lehiaren bidez izango da, baratza kopurua mugatua baita. Dena den, arau hori ez da ezarriko Udalak espezifikoki erabiliko dituen lursailetan.
2. Prozedura horri Udalak ofizioz ekingo dio, horren haritik eskumeneko tokiko organoak ebazpena eman ondoren. Bertan aisialdiko baratza ekologikoak hartzeko lizentziak



emateko deialdia izango da, baratza guztiena edo baratza kopuru mugatu batena. Deialdi hori Udalaren web orrian jendaurrean jarriko da.

3. Baratze ekologikoen adjudikazioan interesaturik dagoen pertsonak eskabidea aurkeztu beharko du udal Erregistroan, eredu ofizialaren arabera. Eskabideari erantsi beharko zaio, eredu normalizatuan eskatzen diren dokumentuez gain, honako dokumentazioa:
  - a) NANaren fotokopia edo legez ordezkatzeko duen beste dokumenturen bat.
  - b) Aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela adierazten duen dokumentazioa edo zinpeko adierazpena.

Udalak ofizioz konprobatuko du duela urte batetik errola eta egiazko bizilekua, arau-hausterik ez izatea eta Udalarekin zerga betebeharretan edo bestelakoetan egunean dagoela.

### ***12. artikulua. Eskumenak eta prozedura.***

Lizentziak emateko prozedura Alkatetzak ebatziko du.

Eskaera aurkezteko gutxienez hamabost egun naturaleko epea ezarriko da. Ondoren onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda onartuko da eta udalaren Iragarki Taulan argitaratuko da. Nahi dutenek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte bost eguneko epean gehienez. Epe hori bukatu ondoren, eta jasotako erreklamazioak ebatzita, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda jasoko duen ebazpena emango da. Esleitu beharreko baratzeak baino onartutako eskaera gehiago balego, zozketa publikoa egingo da. Zozketaren data behar bezala iragarriko da eta baratze zehatza esleitu da hartan.

Behin betiko zerrenda eta, hala behar badu, zozketa egin ondoren, esleipendunen zerrenda eta behin betiko itxaron-zerrenda argitaratuko dira, udalaren Web orrian argitaratuta.

Lizitazio bakoitzerako deialdian zehaztuko dira zozketarako irizpideak.

### ***13. artikulua. Lizentziak adjudikatzea eta ordezkoen zerrenda.***

Adjudikazio-hartzaileei ematen zaien zerrendak zertarako zehaztuko ditu baratzaren definizioa, baratzaren kokapena eta erabiltzailearen eskubideak eta betebeharrak.

Zozketan baratze baten esleipendun suertatu ez diren pertsonak itxaron-zerrenda batera pasako dira. Zerrenda hori bajak betetzeko erabiliko da, eta horretarako, hurrengo hautagaiari dei egingo zaio, aipatutako zerrenda horretan duen ordenaren arabera, baimena indarrean dagoen epearen barruan.

Baratzearen erabilera onartzen duen baimena esleitu ondoren, esleipendunak eskatzen den fidantza jarri beharko du eta onartutako kuotaren zenbatekoa autolikitatu beharko du, esleitutako baimena jasoko badu. Esleipenerako epea igaro ondoren itzuliko da fidantza, baldin eta esleitu zitzean unean zegoen egoera berdinean itzultzen badu baratzea.

### ***14. artikulua. Lizentzien behin-behinekotasuna.***

- 1) Aisialdirako baratze ekologikoak daudeneko eremu publikoaren erabilera eta gozamenerako eskubidea ematen duten 4 urte arteko iraupena izango dute eta



luzaezinak izango dira, nahiz eta titularrak hurrengo deialdietan parte hartu ahal izango duen.

- 2) Kasuaren arabera eskumena duen organoak indargabetu ahal izango ditu aipaturiko lizentziak, baldin eta lizentzia emateak ekarri zituen baldintzak betetzen ez badira, edo adjudikazio- hartzaileei egokitzen zaizkien betebeharrak, Ordenantza honetan zerrendaturik daudenak eta ezarritako prozeduraren arabera.

### ***15. artikulua. Lizentziak eskualdatzea eta iraungitzea.***

Lasarte-Oriako Baratza Parkeko baratzak erabiltzeko eskubidea ematen duten lizentziak:

- a) Ezingo zaio hirugarren pertsona bati eskualdatu.
- b) Epea amaitzeagatik iraungiko dira.
- c) Ezeztatu edo baliogabetu ahal izango dira:
  - c1) Elkarren arteko adostasunez.
  - c2) Epailearen erabakiaren bidez.
  - c3) Kontzesiodunak uko egiteagatik
  - c4) Ordenantza honetan edo dagokion lizentzia emateko ebazpeneanezarritako betebeharrak eta xedapenak ez betetzeagatik, interesatuari audientzia eman eta espedientea tramitatu ondoren.

## **III TITULUA**

### **BARATZAK ERABILI ETA ETEKINAATERATZEKO**

#### **BALDINTZA OROKORRAK**

#### ***16. artikulua. Erabiltzeko baldintza orokorrak.***

1. Aisialdirako baratze ekologikoen erabilera adjudikatutako pertsonak behartuta egongo dira baratzea berek erabiltzera, hau da, baratzan erabilera ez lagatzera hirugarrenengo bati, eta ez uztera hirugarrenengoei baratza erabiltzen, erabilera edozein dela ere, eta baratzan gaineko erabilera eta gozamenari dagokionez, honako baldintza hauek betetzera:

- a) Arau orokorra izango da Ordenantza honetan jasotako alderdi guztiak errespetatzea, baratzak erabileran eragiten dutenak, alegia.
- b) Baratzak soilik erabiliko dira berez eskualdekoak diren eta zurezkoak ez diren baratzeko espezieak eta aldaerak landu eta aldatzeko, hau da, letxuga, tomatea, tipula, porrua, kalabazina, baba, etab. Era berean, loreak eta landare apaingarriak eta usaintsuak edo sendabelarrak ere landuko dira. Eta, alde batera utzi beharko dira arreta berezia behar duten bestelako landaketa motak.
- c) Erabiltzeko lagatzen diren instalazioak mantenduko dira ematen diren baldintza berdinetan, eta beharrezko arreta izan beharko da. Lursaila uneoro garbi mantendu beharko da, bertan dauden landareei kalterik egin gabe.
- d) Erabiltzeko moduan ematen diren ondasunak zaindu eta babestuko dira. Udalari jakinarazi beharko diote baratzetan edo instalazioetan eragiten duen edozein gorabehera, gainerako erabiltzaileek nahiz hirugarrenengoek sortutakoak, baratza erabiltzaile ez direnek eragindakoa.



- e) Udalari itzuli beharko diote baratza edukitzea, lizentzia epea amaitu ondoren, betiere beste edozein erabiltzailek etekina ateratzeko moduko baldintzetan; edota lizentziari uko egin edo baliogabetuz gero, hori burutzen den une berean.
- f) Hasiera batean lagatzen den lursaila egitura eta azalera mantenduko dira, Udalak jarritako muga ezingo da aldatu, ezta inolako obra edo itxitura motarik egin aurretik Udalaren eskumeneko organoak baimendu ezean. Era berean, instalazioaren titularrak ezingo du jarri lurra lantzeko ez den bestelako elementu espezifikorik, hala nola barbakoak, estalpeak, etxetxoak, etab., ez lurzoruaren azaleraren gainean, ez lurpean.
- g) Baratzak erabiltzen dituzten gainerako pertsoneri eragozpenak sortzea saihestuko da, eta halakoei kalteak edo lesioak eragin diezazkieketen tramankulu, gailu edo sistemarik ezingo da erabili.
- h) Baratzean lurra lantzeko, edo garbitzeko edo beste edozein erabileran lurzoruan kutsadura eragin dezaketen produktuak erabiltzea saihestuko da.
- i) Baratzak lantzeari eta erabiltzeari ezingo diote utzi, eta bereziki fruituak ezingo dituzte utzi baldin eta kiratsa sortu, lursaila zikindu edo ingurua eta paisaiaren kalitatea kaltetzen badute, landarean edo lurzoruan egon edo ez.
- j) Baratzetan materialak edo tresnak uztea edo metatzea saihestuko da, lurra lantzeko beharrezko direnak izan ezean.
- k) Baratzetan animaliak izatea eragotziko da.
- l) Baratzean lurra lantzeko lanetan egonaldia girotzeko musika ekipoari ez da erabiliko.

2. Elementu komunak, bai azpiegiturak, bai lanabesak, a erabilera eta garbitasun baldintza egokietan errespetatu eta mantendu beharko dira, txabola eta konpostatzeko guneak barne. Elementu komunak mantentzeko erabiltzaileen elkarrekin ezartzen dituen erabakiak erabiltzaileak bete egin beharko ditu. Era berean, elkarrekin ordezkaritza bat edo hainbat izendatu beharko ditu erabiltzaileentzako erabaki lotesleak hartzeko, elementu komunei eragin diezazkieketenak, hala nola Udalarekin izan beharrez harremanetarako.

3. Lizentziaren titularrak aurreko edozein baldintzetakoren bat ez betetzeak ekarriko du Udalak lizentzia baliogabetzea.

4. Era berean, instalazioak zaintzea, konpontzea eta mantentzea eta behar bezala erabiltzea, gaurko egunean erabiltzaileek berek zainduko dute. Horiez gain, haien ardura izango da instalazioetan behar bezalako erabilera eta baratzak eta horiei loturiko azpiegiturak behar bezala zaintzea, konpontzea eta mantentzea, baldin eta erabilera desegokiren bat izaten denean.

5. Halaber, adjudikazio-hartzaileak beharturik egongo dira nekazaritzako eta Udalak antolaturiko baratza ekologikoko praktika egokiekin aritzera.

6. Behin betiko adjudikazio-hartzaile direnak beharturik egongo dira baratzak kudeatzeko elkarte bat eratzea, eta Udalaren kudeaketa arduradunarekin harremanetan jartzeko pertsona bat izendatu beharko dute. Horrek erabiltzaileen zalantzak, arazoak, etab. jasotzeaz arduratuko da.

7. Erabiltzaileen elkarrekin egutegi bat ezarri beharko du, behar diren mantenimendu lanetan lankidetzan jarduteko (lursailak mugatzea, uraskak garbitzea, etab.). Egutegia adostua izango da Udalaren zerbitzu teknikoekin.

8. Adjudikazio-hartzaileek bete egin beharko dute erabiltzaileen elkarrekin udal zerbitzu teknikoekin batera ezarritako ixteko eta irekitzeko ordutegia.

## ***17. artikulua. Lurrari etekina ateratzea.***



Lagapenaren titularra beharturik dago baratzetarako lagatako lursaila nekazari on baten arduraz lantzeraz. Aurreko Artikuluan ezarritakoari kalterik eragin gabe, baratzei etekinak ateratzeko honako baldintzak bete beharko dira:

- a) Ez da baimenduko lurra, lurzorua edo lurrazpikoa hondatzea dakarten landare-espezieak edo landareak lantzea.
- b) Era berean, erabiltzaileak ezingo du landatu espezie exotikorik, inbaditzaileak edo Legeak lantzea edo ereitea baimentzen ez dituen bestelakoak.
- c) Bestalde ezin dira sasoikoak ez diren espezieak landatu; gehienez zortzi hilabeteko epean uzta jasotzeko landareek izan beharko dute, eta ezingo dira landatu zuhaitzen moduko espezieak, fruta-arbolak badira ere.
- d) Ezingo dira instalatu negutegiak, kutxak, iltzatutako elementuak, etxolak, txori-izugarriak, eta horren antzekoak.
- e) Debekatuta dago sasiak edo uztondoak erretzea, eta, orobat, aisialdirako baratze ekologikoen barrutian mota guztietako suak piztea.
- f) Ez da baimenduko paisaia kaltetzen duten elementurik instalatzea edo dauden instalazioak aldatzea, hala nola bidoiak, ur-biltegi osagarriak, xaflak, bereizgailuak edo antzekoak.
- g) Lursailetan ezingo izango da eraiki, ezta itzalpekorik, esekigailurik edo inguruaren itxura aldatzen duen bestelako elementurik ere.
- h) Ezin izango da pozoirik, zeporik, eta basa fauna desagerrarazteko beste inolako sistemarik erabili.
- i) Ez da baimenduko lursailetan itxiturak jartzea edozein motatako hesiekin, harriak, egurrak, adreiluak, blokeak edo eraikitze edo mugatzeko bestelako elementuak baratza ixteko, mugatzeko, markatzeko
- j) edo baratza seinaleztatzeko, bertako izkinak edo ertzak. Soilik izango dira berriro mugatzeko Udalak ezarritakoak.
- k) Debekatuta dago likidorik isurtzea besteen baratzeetan, ezta sastraken edo garbiketaren hondakinak betan edo beste baratzeen gainean utzi ere.

Lizentziaren titularrak urreko edozein arau betetzen ez badu, horrek ekarriko du titularrak lizentzia galtzea.

### ***18. artikulua. Adjudikazio-hartzailearen eskumenak.***

Erabilera arrunt berezia emateko lizentziak emateko prozeduran adjudikazio-hartzaile izan denaren eskumenak dira lurra eta baratza osatzen duten bestelako elementuak izatea erabiltzaile gisa. Horrela, bada, erabiltzaileei egokitzen zaien etekin ateratzea izango da bertan landu dituzten landare espezieen etekina, hau da, horietatik lortu dituzten emaitzak.

1. Eskumenak zehazten dira lurraren erabileran, onura eta etekina ateratzean, eta berekin dakar lurra goldatzea, ereitea eta landatzea, lurra zaintzea eta mantentzea, ureztatzea, ongarrizatzea, erabiltzea, fruituak eskuratzea, eta lagatako ondareari begira txertatuta dauden bestelako eskumenak.
2. Era berean, horren barnean sarturik daude elementu komunen erabilera, horiei etekina eta onura ateratzea, Udalak erabiltzaileen eskura jartzen dituen laborantzarako lanabesak ere.
3. Artikulu honetan adierazitako ahalmenak lizentziaren titularrari bakarrik dagozkio, eta ez dago onartuta beste pertsona batzuek laborantzan laguntzea titularrari, ezta beste erabiltzaileek eskaini liezaioeketen laguntza ere.



4. Eskumen horiek iraungiko dira erabiltzeko kontzesio epea amaitzen denean, edo erabilera egokitzeko lizentzia baliogabetzen bada, Ordenantza honetan azaldutako zergatiak oinarritzat hartuta.
5. Inola ere, baratzen jabetza eskubidea ez da emantzat hartuko, herri-jabariko ondasunak direlako. Izan ere, ondasun horiek herri-jabariko izaera dute, ezin dira bahitu, ezin dira besterendu eta ezin dira preskribatu

### ***19. artikulua. Nekazaritza ekologikoa. Nekazaritza bioaniztasuna.***

Baratza erabiltzaile onuradunek ezingo dute ongarririk ezproduktu zoo eta fitosanitariorik erabili, lurrak, gainazaleko urak edo akuiferoak kutsatu eta kalte handia sor lezaketenak, edo atmosferara nahi ez ditugun partikulak isuri edo inguruko faunan eta floran eta bertako bizilagunengan kalteak eragin litzaketenak. Era berean, ezingo da erabili lurra kutsatzen duten produktu kimikorik erabili.

Halaber, erabat debekaturik dago lurrean edozein produktu kutsatzaile isurtzea, lurrean kalte handia sor dezakeena, alegia. Izurriteen eta gaixotasunen aurka irtenbide naturalak erabiliko dira. Lurra gai organikoaren bidez ongarrirituko da, aldezturik usteldutakoa (konposta, simaurra, hondakin organikoak, etab.). Ez da erabiliko ongarririk artifizialik.

Asmoa da jarduera hori laborantzako ohiko metodoekin uztartze, baina uko egin gabe ezagutza eta teknika berriei, ingurumenaz metodo zientifiko baten bidez arduratzen direnak. Hortaz, garatu beharreko nekazaritza ekologikoa izango da, eta produktu kimikoak alboratuko dira (produktu «kimikoak» dira produktu naturalen» aldean dira, honako hauetatik sortzen diren produktuak (sinpleak nahiz konplexuak):

- a) Produktu naturaletatik sortuak tratamendu kimikoen bidez,
- b) Landare gaitetatik edo animalia ehunetatik sortuak tratamenduen bidez,
- c) Sintesi kimikotik sortuak, partzial izan ala ez (A. Dehovel-en definizioaren arabera).

Gauzak ulertzeko modu horrekin bat etorrira, Lasarte-Oriako Baratzak Parkearen lursailak erabiltzeko nekazaritza ekologikoko arau hauek hartu beharko dira kontuan:

1) Ongarriei dagokienez:

#### Debekaturik daude:

- a) Sintesiko ongarririk organiko guztiak (Merkatu espainiarrean merkaturatzen diren guztiak) eta kutsaturiko produktuekin sorturiko konpostak (pestizidekin eta herbizidekin trataturiko lastoa, simaurra, belarra eta ongarririk organikoak).
- b) Ongarririk mineral guztiak (nitrogenatuak, fosfatatuak, potasikoak, magnesioak, kare bizia, etab.) prozedura kimikoen bidez lortzen badira.

#### Baimenduta daude:

- a) Zizaren humus, konpostaren bidez eginiko simaurrak (ulertuko da konpost egitea dela hartitze aerobikoa), ongarririk berdeak eta erabat ustelduriko uzta soberakinak, hala nola kutsatu gabeko hondakinetatik sorturiko konposta.



- b) Jatorri naturaleko ongari mineralak (fosfato natural ehotuak, silize hautsak, kareharri ehotuak, dolomitak, etab.).

## 2) Tratamendu fitosanitarioei dagokienez:

### Debekaturik dago:

- a) Intsektizidak, fungizidak, akarizidak eta sintesi kimikotik sorturiko bestelako produktua.

### Baimendurik dago:

- a) Sustantzi mineral, begetal eta animalia produktu naturalen bidez prestatutako fungizidak (bordeles salda, Borgoinako salda, eta).
- b) Landare bidez prestatutako prestakinak (mazerazioak, infusioak, egosteak, pixorrak).
- c) 3) «Belar txarrei» dagokienez:

Debekaturik geratuko da sintesiko edozein herbizida erabiltzea.

Baimendurik geratuko da metodo biologikoak erabiltzea landaredi lehiakidea kontrolatzeko (lur-estaltzea, eskuz jorratzea edo eskuz erdi jorratzea, baratze-alor sakoneko laborantza).

## 4) Haziei eta landareei dagokienez:

### Debekatuta dago:

- a) Laborantza kimikotik datozen barazkiak aldatzeko erabiltzea.
- b) Sintesiko produktu kimikoekin trataturiko zainak, erraboilak eta tuberkuluak erabiltzea prestatzeko edo gordetzeko.
- c) Haziak jaso ondoren produktu kimikoekin tratatuta erabiltzea.
- d) Genetikoki aldarazitako edozein motatako eta bariatetako organismo guztiak (transgenikoak).

### Baimendurik dago:

- a) Laborantza biologikotik datozen barazkiak, zainak, erraboilak, tuberkuluak eta haziak erabiltzea.
- b) Ohiko laborantzatik datozen produktuak izan arren, sintesiko produktu kimikoen bidez tratatu ez diren produktuak erabiltzea.

Garatu beharreko laborantza ekologikoa iraunkortasunezko ekoizpen eta kontsumorako praktiken adibide izango da.

## ***20. artikulua. Ureztatzeko baldintzak***

1. Baratza erabiltzaileen titularrek eskura jarri dieten ureztatzeko sistema erabil beharko dute. Sistema Lasarte-Oriako Baratza ekologikoaren Parkearen barnean dago eta ureztontzien bidez ureztatzen da urasketako ura erabiliz.



2. Ezingo da dagoen edo libre dagoen bestelako elementurik erabili. Horrez gain, debekaturik geratuko da urreztagailuak edo alboko baratzen inbaditu ditzaketen bestelako elementuak erabiltzea.
3. Debekaturik geratuko da baratzen urreztatze, horretarako prestaturik ez dagoen edozein puntutatik ura ekartzea.
4. Edonola ere, ur hartunea irekita uztea saihestuko da, urreztatze ura alferrik xahutzea edo eskura dagoen uraren ezohiko kontsumoa eragiten duten metodoak erabiltzea. Horiek guztiak lizentzia baliogabetzeko arrazoiak izan daitezke.

### ***21. artikulua. Hondakinen tratamendua.***

1. Baratzek erabiltzaileak egokitzen zaien lursaila behar bezala garbitzeaz arduradun izango dira eta hala izateko hondakin organikoak konposta egiteko ontzian utzi beharko dituzte bertan ustel daitezkeen. Era berean, baratzek erabiltzaileak arduratuko dira konpostatze komunitarioko eremuak zuzenean kudeatzeaz, utzitako hondakinak iraultzeaz eta konposta egiteaz, eta baita konposta lursailan zabaltzeaz ere.
2. Gainerako hondakinak gaika utziko dira Udalak horretarako jarritako edukiontzietan edo tokian eta ez beste inon.

### ***22. artikulua. Lurra emandako fruituen erabilera.***

1. Erabiltzaileek lurra lantzearen poderioz eskubidea izango dute fruituak biltzeko, baina soilik norberak edo familia unitateak kontsumitu ahal izango du.
2. Lasarte-Oriako Ekologikoaren Baratzek Parkeko lursailetan erabiltzaileek lortzen dituzten baratza produktuak ezingo dituzte saldu, ezta merkataritzako inolako eragiketarik egin, horien merkataritzako trafikok juridikorik dakarrena.

### ***23. artikulua. Mantentze eta finantzazio gastuak.***

1. Lizentzia indarrean dagoen aldi osoan zehar baratza erabiltzaileak bere gain hartuko ditu baratza lantzeak dakartzan gastuak, hala nola ongariak, ereindako landareak, tresnak, eta lurra lantzeko beharrezko diren gainerakoak. Horrez gain, saila ekoizteko moduan behar bezalako zaintze baldintzetan mantendu beharko du.
2. Erabiltzaileak beharturik egongo dira ezarritako edozein zerga ordaintzera (tasa, kanona, etab.), baldin eta arrazoiak emanda eta Zuzenbidearen arabera bada, Udalak edo erabiltzaileek elkarrekin halakorik onartzen dutenean baratzen erabiltzeagatik sortzen diren gastuei aurre egiteko.
3. Udalak kuota bat ezarriko du baratza lantzeagatik, eta, era berean fidantza bat udal jabariko gunea behar bezala erabiltzen dela bermatzeko. Tasa ordenantza fiskaletan ezarriko da, eta fidantza baratzek erabiltzeko lizentziak esleitzeko onartzen den deialdian ezarriko da.



4. Ur kontsumoari dagozkion fakturak jaulkiko dira. Erabiltzaile bakoitzak elkartearen bitartez ordainduko ditu, proportzionalki.

#### ***24. artikulua. Ingurumen hezkuntza.***

1. Lasarte-Oriako Ekologikoaren Baratze Parkean dauden instalazioak hainbat ikastetxetako ikasleek bisitatu ahal izango dituzte, hala nola hainbat elkartek, era horretan bertan burutzen diren jarduerak ezagutarazteko, eta, bide batez, nekazaritza tradizionala eta ekologikoa erakusteko.

2. Hala izan dadin, baratza erabiltzaileak beharturik egongo dira, baratzeak duten irekiera ordutegian zehar, Udalak, Baratza Parkearen Sareak nahiz bestelako edozein instituzio publikok antolaturiko bisita taldeei sarrera uztera.

3. Halakoetan, erabiltzaileek lagundu beharko diete, ahal duten neurrian, ikasleekin batera doazen irakasleei edo gainerakoei, baratzetan dauden bitartean. Era horretan bisita taldeei azalduko diete zein diren fase desberdinetan dauden lurra lantzeko teknikak eta ezaugarriak: Lurra prestatzea, ongarritzea, ereitea edo landatzea, ureztatzea, jorratzea, izurriteak ezabatzea, uzta biltzea eta hondakinak jasotzea.

4. Halaber, erabiltzaileek naturari eta lurrari loturiko balioak transmititu ahal izango dituzte. Horretan dituzten ezagutzak azalduko dituzte, lurra lantzeko erabilitako metodo, tokiko espezie eta barietateei buruzkoak, hala nola ikasleen eta beste talde batzuen interesa pizten duten edozein daturen inguruan nekazaritza tradizionalaren alorrean eta bereziki ekologikoaren eta oro har ingurumenaren gainean. Horrez gain, belaunaldien arteko harremanak ere sustatuko dira.

#### ***25. artikulua. Erabiltzaile egoera galtzea.***

1. Ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzeak Errenteriako Baratza Parkearen erabiltzaile egoera galtzea dakar, eta, horren ondorioz, gozatzen zuen erabilerara arrunt bereziko eskubidea eta baratza erabiltzeko baimena eta eskubidea galtzea.

2. Bereziki, erabiltzaile egoera honako hauen ondorioz galduko da:

- a) Atzera egitea edo eskubideari uko egitea, baratza erabiltzeko onuradunak Udaletxean aurkezturikoa.
- b) Erabiltzailearen heriotza edo baratzeko lanak burutzeko eragozten duen duen gaixotasuna.
- c) Errolda aldatzea, edo jarraian edo benetan edo errealki ez bizitzea udalerriko honetako etxebizitza batean lizentzia indarrean dagoen aldi osoan zehar.
- d) Lursailaren erabileran edo lantzean utzikeria izatea hamabi hilabetetik gora.
- e) Adjudikazioa egitea eragin zuten baldintzak aldatu direlako.
- f) Ordenantza honetan zehazturiko bateraezintasun edo debekuren batean gertatzea.
- g) Baratze erabiltzea Ordenantza honetan ezarritako bestelako erabilerara eta helburuetarako.
- h) Udalak edo beste edozein Administrazio Publikok Hirigintzako edo azpiegiturako edozein Plan onartzea, edozein hornikuntza publiko ezartzea dakarrena Lasarte-Oriako



Baratza Parkea izateko diren lursailetan. Halakoetan, horrelako plana onartzeak ekarriko du erabilera publikotzat edo gizarte interesekotzat jotzea, emaniko tituluak indarrrik gabe uzteko herri-jabariko lursailen erabilera.

- i) Bizikidetzako oinarritzko arauak ez betetzea, auzoko harremanetan edo elkartasunik gabeko jarreran, baratzen gainerako erabiltzaileekin.
- j) Arau-hauste larria edo oso larria izateagatik zigorra ezartzea, lizentzia baliogabetzea beti dutenak.

### ***26. artikulua. Lizentzia baliogabetzeko prozedura eta erabiltzaile egoera galtzea.***

1. Erabiltzaile egoera galtzea Udalak burutuko du lizentzia baliogabetzeko prozedura baten bidez. Prozeduran erabiltzaileari gertakariak azalduko zaizkio eta 10 eguneko epea ere emango zaio alegazioak egiteko, era horretan espedientea behin betiko ebatziko da.

2. Erabiltzaile izaera galtzeak inola ere ez du ekarriko bere aldeko kalte-ordainik onartzea, ez ordaindutakoa itzultzeko eskubiderik. Hortaz, fidantza konfiskatu egingo da, eta Udalari eragindako kalte-ordainak ordainduko zaizkio. Eta, horrez gain, itxaron zerrendan kokaturiko hurrengo eskatzaileari adjudikatu ahal izango zaio baratza.

## **IV TITULUA ERANTZUKIZUN SISTEMA**

### ***27. artikulua. Baratzearen laborantzagatikako erantzukizuna.***

1.— Baratze erabiltzaile bakoitza laga zaion baratzarekiko egiten dituen ekintzen erantzule da banakako gisa. Erabiltzaileak lizentzia eskatzeak, Ordenantza hau ezagutzearekin batera, dakar dagokion adjudikazio-hartzaileak lizentzia erabat onartzea, baratzak erabiltzeko gaitzen duena. Era berean, zalantzarik gabe erabiltzaileak berak bere gain hartu beharko du lurra hartzeagatik eta lantzeagatik sortzen den erantzukizuna, Ordenantza honetan ezarritako baldintzetan eta bereziki banakako gisa erantzukizuna bere egiten du honako hauetan:

- 1) Lurra lantzeko prozesua, Udalaren ardura ez baita lurra lantzearen inolako eraginik edo ondoriorik, bereziki lurraren egoera eta ekoizteko gaitasuna.
- 2) Lurra lantzeko era, Udalaren ardura ez baita izango tresnak erabiltzea ez erabiltzaileak horiek erabiltzeagatik osasunean edo osotasun fisikoan izan ditzakeen ondorioak.
- 3) Bartzean izandako ekintza bandalikoak, lapurretak edo kalteak, ez produktuetan ez fruituetan, edo erabakitzaileak bildu edo gorderiko tresnetan. Halakoak ezingo zaizkio Udalari gotzi, inola ere.
- 4) Animaliek baratzean edo landutako produktuetan sor ditzaketen kalteak.



- 5) Osasunean izan ditzakeen eraginak, norberarena edo hirugarrenagoena, baratzean bilduriko produktuen kontsumitzaileena.

2.— Erabiltzaileak Udalari derrigorrez jakinarazi beharko dio baratzean edo lagatako instalazioetan, norberarena edo hirugarrenagoena, kalte edo akatsen bat antzemanaz gero.

***28. artikulua. Hirugarrenagoenganako erantzukizuna.***

1. Era berean, erabiltzaileak hirugarrenagoei, Lasarte-Oriako Ekologikoaren Baratzak Parkearen erabiltzaileak izan edo ez, sor diezazkieketen kalteen arduradunak izango dira, betiere duten lursaila erabili eta ustiatzeko eskumenak burutzean sortzen direnean.

2. Halaber, erabiltzaileei edo horiek dituzten baratzeei sorturiko lesio edo kalteen erantzule izango dira.

3. Behar bezalako arduraz jokatu beharko da, gainerako erabiltzaileen baratzetan, edo erabiltzaileengan, edozein kalte, eragozpen edo lesio mota saihestearren.

***29. artikulua. Udalari kalte-galerak ordaintzea.***

1. Erabiltzaileek baratzak lantzearen ondorioz hirugarrenagoei edo beren ondasunetan sortzen diren erantzukizunen arabera, erabiltzaileak beharturik egongo dira kaltetuari egokitzen zaion kalte-ordaina ordaintzera, izandako kalteak edo lesioak direla eta.

2. Erantzukizuna sortuko balitz baratzari edo Udalak erabiltzeko lagatzen dituen instalazioetan kalteak eragiteagatik, Udalak eskubidea izango du dagokion kalte-ordaina erreklamatzeko. Horretan gerora aplikagarriak administrazio zuzenbideko arauak hartuko ditu oinarritzat Udalak.

***30. artikulua. Hasierako egoerara itzultzea.***

1. Baratzak itzuli beharko dira adjudikazio-hartzaileari itzuli zitzaizkion baldintza berdintsuetan, kanpoko ekarpenek lurra funtsean aldatu gabe.

2. Baratzaren erabileraren titularrek, baldin eta instalazioak hondatu badituzte, eguneroko erabileraren ondorioz eragindako ohikoa ez balitz, gauzak hasiera batean zeuden bezala itzuli edo berritu beharko ditu.

3. Erabiltzailearen batek konpontzeko eginbeharra beteko ez balu, Udalak zuzenean burutu ahal izango du, haren kontura. Administrazioek balizko horietan dituzten ahalmenak Udalak erabili ahal izango ditu hark itzulketa egin dezan.

**V TITULUA  
DIZIPLINA ATXIKITZEKO NEURRIAK**

***31. artikulua. Arau orokorrak***



1. Lasarte-Oriako ekologikoaren baratze Parkearen erabiltzaileek derrigorrez bete beharko dute Ordenantza honetan ezarritako guztia. Eta, bertan aurreikusitako gabe dauden kasuetan, Tokiko Entitateen ondasunei buruzko araudiak ezarritakoa bete beharko dute.
2. Araudiaren aginduen kontrako edozein jarrera arauhaustetzat hartuko da eta Udalak halakoak zigortu egingo ditu.
3. Erabiltzaileek Baratza Parkeko instalazio edo lursailetan, kalterik eragingo balute, dolo, erru, utzikeria edo besterik gabe ez jabetzeagatik, edo aurka egingo baliote baratzaren xede nagusiari edo araudiari, bide administratibotik zigortuko dira, isun bidez, Ordenantza honetan jasotako baldintzetan.
4. Zigorren diru-kopuruaren graduazio eta zehaztapena irizpide hauen arabera egingo da:
  - a) Eragindako kaltearen diru-kopurua.
  - b) Arau-hausleak jasotako etekina.
  - c) Nahita eginda izatea edo nahi gabe izatea.
  - d) Izaera bereko arau-hauste bat egitea urte bateko epean, ebazpen finkoen bitartez adierazi direnean.
5. Arau-hausteak izandako etekina baino txikiagoa denean isunaren zenbatekoa, isunaren diru-kopurua igo egingo da etekinarena parekatzeraino. Horretan gehienezko diru-kopurua eragindako kaltearen bikoitza izango da.
6. Erabiltzailearen erantzukizun nagusia edo zuzenekoa izan ahalko da, baldin eta eurak badira arau-hausleak, edo zeharkakoa, ekintzen egilea instalazioetatik kanpoko norbait denean eta erabiltzaileak ontzat hartuta edo utzikeriak ahalbideratu dituenek ekintza horiek.

### ***32. artikulua. Ikuskaritza.***

1. Udalak hautaturiko langileek lagatako instalazioak ikuskatu ahal izango dituzte, nekazaritzako jarduerak burutzeko ezarritako ordutegiaren bamean.  
Langile horiek agintari izaera izango dute ikuskaritzan diharduten bitartean.  
Era berean, Alkateak eta eskumen materiala duen Zinegotziordezkariek xede eta funtzio berak izango dituzte.
2. Lasarte-Oriako Baratze Parkeko erabiltzaileek arestian aipaturiko pertsoneri baratzetarako sarbidea erraztu beharko diete, baita haiek eskatzen dieten informazio guztia eman ere, aisialdirako baratz ekologikoetan egindako laborantzako erabilera, aprobetxamendu eta kudeaketari behar bezala jarraitzeko.

### ***33. artikulua. Arau-hausteak.***



1. Jarrera arau-hausletzat hartuko da baratzetako erabiltzailek zein kanpoko pertsonaren batek izandako jarrera oro, Ordenantza honetan edo aplika daitekeen beste edozein arauditan esanikoaren kontra egiten duena, baldin eta azkena hau Araudi honetan derrigorrez bete behar dela jasota badago.
2. Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak gisa kalifikatuko dira, jarrera arau-hauslearen edo instalazioei eragindako kalteen intentsitate edo erruaren mailaren arabera.
3. Zehazki, eta aurrekoari kalterik egin gabe, arau-hauste arintzat hartuko dira honako jarrerak:
  - a) Ordenantza honetan espresuki xedaturiko baldintzetan baratzerako berez egokiak diren espezieak baratzetan ez landatzea edo ez lantzea.
  - b) Baratzetan animaliak izatea.
  - c) Udalak bere langile teknikoek bidez emaniko argibideak baratzen erabileraren gainean ez betetzea.
  - d) Baratzeetan trakzio mekanikoko ibilgailuak edo makinak egotea
  - e) Baratzeak erabiltzeari dagokionez, Udalak bere teknikarien bidez erabiltzaileei ematen dizkien jarraibideak ez betetzea.
  - f) Baratzen erabiltzaileek izaniko beste edozein jarrera, baldin eta Udalak baratzen erabiltzaileei Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak eta zereginen aurkakoak bada, eta ez baldin bada arau-hauste larria edo oso larria.
  - g) Udalak antolatzen duen lehenengo prestakuntza ikastarora ez joatea kausa justifikaturik gabe.
4. Arau-hauste larritzat hartuko dira honako jarrerak:
  - a) Erabiltzeko lagatzen diren baratzen mantenimendua ez betetzea, baratzak kaltetu edo hondatu diren kasuetan.
  - b) Lursailean obrak edo aldaketak egitea, Udalak aurrez aldetik baimendu ez baditu.
  - c) Beste erabiltzaileek jasan beharko ez lituzketen eragozpenak sortzea.
  - d) Udalak baimendu gabe hirugarrenei baratzen erabilera lagatzea.
  - e) Lurra, lurzorua edo lurrazpikoa kaltetzea eragin dezaketen espezieak edo landareak lantzea.
  - f) Baratzetan onartzen ez diren barbakoa, biltegi edo bestelako elementuak instalatzea.
  - g) Belardiak edo baratzetako laborantzaren hondarrak erretzea, edo aisialdirako baratze ekologikoen barruan edozein su mota piztea.
  - h) Bi huts-egite arin edo gehiago biltzea urte beteko epea.
5. Arau-hauste oso larritzat hartuko da honako edozein jokabide:
  - a) Gainerako baratzetako kideei eragindako lesioak, erabiltzaileak berak edo harekin doan beste edozeinek eragindakoak.
  - b) Zoruan kutsadura sortzea.
  - c) Beste erabiltzailek baratzen behar bezalako aprobetxamendua eta erabilera saihestea.
  - d) Baratzen ohiko funtzionamendua eragotzi edo saihestea.
  - e) Lagatzen diren instalazioak eta/edo lursaila bera larri eta nabarmen hondatzea.
  - f) Ereitea, landatzea, biltzea edo izatea debekaturik dauden landare exotikoak edo psikotropikoak edo bestelakoak ekoiztea.
  - g) Aisialdi baratz ekologikoetan lorturiko produktuak komertzializatzea.



- h) Identitate, adin edo baratzen erabilera esleitzeko garrantzitsua den beste daturen b at faltsutzea, edo identitatea ordeztea.
- i) Bi huts-egite edo gehiago metatzea urtebeteko epean.

6. Lizenziaren titularrak hutsegite larri edo oso larriren bat eginez gero, lizentzia baliogabetu egingo zaio, betiere ezarriko zaion zigorrari kalterik egin gabe, hurrengo Artikuluan xedatutakoaren arabera. Lizentzia baliogabetzen bada, ez da aukerarik izango erabiltzaileari kalte-ordainik ordaintzeko. Horrez gain, arestian xedatutakoari kalterik egin gabe, erabiltzailearen batek izandako jarrera delitu izaera balu, gertakariak aginte judizialaren esku utziko dira, izan daitezkeen zigor motako ardurak zein diren erabakitzeke. Dena den, Udalak salatuko ditu kaltetu dezaketen ekintza penal, zibil eta administratibo guztiak.

### ***34. artikulua. Zehapenak.***

- 1. Egokitzen diren zehapenen diru-kopurua ezarri eta erabakitzeke, Ordenantza honetan jasotako graduazio-irizpideak erabiliko dira.
- 2. Arau-hauste arinak 750 € bitarteko isunekin zigortuko dira.
- 3. Arau-hauste larriak 751 € eta 1.500 € bitarteko isunekin zigortuko dira.
- 4. Arau-hauste oso larriak 1.501 € eta 3.000 € bitarteko isunekin zigortuko dira.
- 5. Lasarte-Oriako Baratza Parkeko instalazioetan kalterik eraginez gero, erantzukizuna duen erabiltzaileak, gauzak jatorriko egoeran zeuden bezala utzi beharko ditu, eragin den kaltea konponduz.
- 6. Lizentzia baliogabetzeak, aurreko Artikuluaren seigarren atalean aurreikusitakoaren arabera, ez du zigor izaerari izango.

### ***35. artikulua. Zehatzeko eskumena duten agintariak.***

- 1. Zigorrak ezartzeko eskumena Alkate/Presidenteari dagokio.
- 2. Edonola ere, Alkateak tokiko beste organo bati delegatu ahalko dio gaitasun zigortzailea, tokiko jardunbideen legeari jarraiki.

### ***36. artikulua. Prozedura zigortzailea.***

Arau-hausleei zigorrak jartzeak prozedura zigortzaile bat abiaraziko du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen, urriaren 1koa, aurreikustako erregimenaren arabera eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen III. kapituluan.

### ***Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.***

Ordenantzahau indarrean jarriko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Lasarte-Oria, 2015eko maiatzaren xx.—Agustín Valdivia Calvo,  
Alkatea.